

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>txepel</b>	"Disimulatzeko aitzakiak izango lirateke. Ihesbide <b>txepelak</b> ."
<b>maiz</b>	"Jaionerekin hitz egiten nuenean zinismo antzeko batek hartzen ninduen <b>maiz</b> ."
<b>uzta</b>	"Gizakiok, gainontzekook, hobe dugu isilik egon; <b>uzta</b> haiek daramate. Zeuok."
<b>kuskutzar</b>	"Kostata apurtu nuen <b>kuskutzarra</b> ."
<b>mataza</b>	"Hari <b>mataza</b> batek beste batera eramaten du, eta azkenean matazara iritsi zaitezke."
<b>zur eta lur gelditu</b>	"Gauzek, ordea, ez zuten nik espero nuen bidetik egin. <b>Zur eta lur</b> gelditu nintzen."
<b>krokatu</b>	"korapilo batean <b>krokaturik</b> nengoen, ez atzera ez aurrera."
<b>alderrai</b>	"Minutu batzuek norakorik gabe ibili nintzen, <b>alderrai</b> ."
<b>esku-ahur</b>	"Zer edo zer esan al du? –galdetu nion, irrikatsu. Berak <b>esku-ahurra</b> erakutsi zidan."
<b>zpelindu</b>	"Azkenean ere koadrilakoekin amaitu beharko nuen, <b>zpelinduta</b> ."
<b>bebarru</b>	"Nik ez neukan oso-oso garbi zein zen zure <b>bebarrua</b> , eta atzera eta aurrera aritu nintzen kale haietan."
<b>bertsu</b>	"Batzuek loreak zituzten. Beste batzuek, hautsa baino ez. Gure modu bertsuaren."
<b>etxafuego</b>	"Di-da jaiki nintzen, etxafuegoa ipurditik sartuta bezala."
<b>di-da</b>	" <b>Di-da</b> jaiki nintzen, etxafuegoa ipurditik sartuta bezala."
<b>ziztatzaile</b>	"Gelako argiak itzalak sortzen zituen han: itzal itzaliak (horrela esan badaiteke), Itzal <b>ziztatzaile</b> eta sarkorrak, itzal mingarriak."
<b>gurari</b>	"Sekulako gogoak nituen. Zurekin egoteko, zure gorputzean galtzeko, zure <b>gurariak</b> betetzeko."
<b>tamaina</b>	"—Berriz pasiera? —Ez zaizu gustatzen? —Bai, <b>Tamainan</b> ."
<b>itun zahar</b>	"Agian gaia zen –gai madarikatua– <b>Itun Zahar</b> tankerako jainkotasuna zela zurea: ankerra, maltzurra eta mendekatia; erabatekoa."
<b>anker</b>	"Agian gaia zen –gai madarikatua– Itun Zahar tankerako jainkotasuna zela zurea: <b>ankerra</b> , maltzurra eta mendekatia; erabatekoa."
<b>mendekati</b>	"Agian gaia zen –gai madarikatua– Itun Zahar tankerako jainkotasuna zela zurea: ankerra, maltzurra eta <b>mendekatia</b> ; erabatekoa."

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>erabateko</b>	"Agian gaia zen –gai madarikatua– Itun Zahar tankerako jainkotasuna zela zurea: ankerra, maltzurra eta mendekatia; <b>erabatekoa</b> ."
<b>pellokeria</b>	"Adibidez, neska guztiak ez zaretela berdinak. Argi; <b>pellokeria</b> dirudi, baina ez dirudien bezain berehalakoa."
<b>bederen</b>	"Nire bizitzako besarkadarik luzeena izan zen. Horrela sentitu nuen, <b>bederen</b> ."
<b>belaki</b>	"—Ekarri belakia –eskatu nizun, eta gorputz osoa xaboitu, poliki-poliki igurtziz."
<b>sarraski</b>	" <b>Sarraski</b> odoltsuren bat gertatu berria zelako itxura osoa zuen lekuak."
<b>atoan</b>	"Dena ulertu nuen <b>atoan</b> . Lasaigarria izan zen segundo batzuetan."
<b>zezeldu</b>	"Joño. Hilekoa – <b>zezeldu</b> nuen."
<b>txorta</b>	"Lehendabiziko <b>txortaz</b> geroztik sarriago elkartu ginen. Pasierak eta pasierak egiten pasatzen genuen denbora, askotan."
<b>oilo-ipurdi</b>	"Buf, oroitzen dudan bakoitzean <b>oilo-ipurdia</b> jartzen zait."
<b>txintik esan ez</b>	"Zure jatu-begirada nire aurrean. Ez nuen, noski, <b>txintik ere esan</b> ."
<b>apika</b>	"Nire gabezia, <b>apika</b> ? Edo hori ote zen jokaera normala? Haragia ase eta kito?"
<b>trauskil</b>	"Hori baino zertxobait <b>trauskilagoa</b> izan zen."
<b>ederretsi</b>	"Horregatik ere izango zenuen piztuta foku puta hura: zu <b>ederretsi</b> zintzadan."
<b>artega</b>	"Elastikoa neuk kendu nuen. <b>Artega</b> nengoen –hainbestetan errepikatu dut ja...–, eta ez nekien nola jardun behar nuen."
<b>irrikatsu</b>	"Hilabeteak daramatzat horren atzetik eta, egia esan, <b>irrikatsu</b> nago. Jaiki egin zinen, aspertu antzean. Aharrausi egin zenuen."
<b>aharrausi egin</b>	"Hilabeteak daramatzat horren atzetik eta, egia esan, irrikatsu nago. Jaiki egin zinen, aspertu antzean. <b>Aharrausi egin</b> zenuen."
<b>eraitsi</b>	"Ikerkuntza-enpresa potolo baten web-orria <b>eraistear</b> egon nintzen."
<b>hegada</b>	"Ez nintzen denboraren <b>hegadez</b> jabetu ere egiten, maldan behera eta galgarik gabe bezala nindoan."
<b>galga</b>	"Ez nintzen denboraren hegadez jabetu ere egiten, maldan behera eta <b>galgarik</b> gabe bezala nindoan."
<b>txolindu</b>	"Koadrilakoekin neukan afaria, eta pixka bat <b>txolindurik</b> nengoen."

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>meategi</b>	" <b>Meategi</b> bat lurraren erraiak higatzen bezala egingo zuen aurrera."
<b>jaregin</b>	"Nire eskuari <b>jaregin</b> zenion."
<b>beira</b>	" <b>Beiraz</b> egindako horma sendo bat tartean izango bagenu bezala."
<b>ttarra-ttarra</b>	"Halako batean eskutik heldu zenidan, <b>ttarra-ttarra</b> , besterik gabe bezala."
<b>alaikiro</b>	"—Ba etorri egin naiz —esan zenuen, <b>alaikiro</b> . —Ikusten dut. Etorri egin zara. Bebarrutik irten eta ez nekien nora jo. Nora? —galdetu nizun.
<b>katatonia</b>	"Ez dakit zenbat segundo behar izan nituen <b>katatonia</b> egoeratik irteteko."
<b>hein</b>	"Arauk ukigarriagoak dira eta mundua pixka bat ulergarri bihurtzen du ( <b>hein</b> batean behintzat!)"
<b>bidezidor</b>	"Baina gure munduak bidezidor oso arraroak ditu, eta ezin direnak inola ere errepikatu, errepikatu ohi dira. Zer demontre egin dezaket nik horren aurrean?"
<b>demontre</b>	"...munduak bidezidor oso arraroak ditu, eta ezin direnak inola ere errepikatu, errepikatu ohi dira. Zer <b>demontre</b> egin dezaket nik horren aurrean?"
<b>antzeman</b>	"Jaionek oihuka hasi behar zuen, <b>antzeman</b> nion."
<b>uler ez nintzan</b>	"Badaezpada esan nizkion, gaizki <b>uler ez nintzan</b> ; pentsa ez zezan gure artekoa berpizten ari zela."
<b>babalore</b>	" <b>Babalore</b> burugogorra. Horretan ez naiz aldatu."
<b>hasperen</b>	"—Joder — <b>hasperen</b> egin nuen. —Ez baduzu nahi... Baldarregia eta lakarregia izaten ari nintzela konturatu nintzen."
<b>baldar</b>	"—Joder —hasperen egin nuen. —Ez baduzu nahi... <b>Baldarregia</b> eta lakarregia izaten ari nintzela konturatu nintzen."
<b>lakar</b>	"—Joder —hasperen egin nuen. —Ez baduzu nahi... Baldarregia eta <b>lakarregia</b> izaten ari nintzela konturatu nintzen."
<b>irristaldi</b>	"Baina Jaionek ez zuen inolako errurik nire <b>irristaldian</b> ."
<b>orban</b>	"Ez neukan ispilu hura oso ondo zainduta preseski —batere ez, zehatz esanda—, eta, <b>orbanak</b> orban eta pitzadurak pitzadura, nire isla gardenaren..."
<b>pitzadura</b>	"Ez neukan ispilu hura oso ondo zainduta preseski —batere ez, zehatz esanda—, eta, orbanak orban eta pitzadurak <b>pitzadura</b> , nire isla gardenaren..."
<b>txima</b>	"Eta <b>tximak</b> , anarkismo boretitz batek jota, ile bakoitza bere aldetik."
<b>oihulari</b>	"Itxaropen <b>oihulari</b> batek zu zinela esan nahi zidan arren."

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>estropazu</b>	"Elastikoak burua estaltzen zidanean, oreka galdu eta apal baten kontra egin nuen <b>estropazu</b> ."
<b>opildu</b>	"—'Xake-txapelduna' zioen; orduan bai, txikitan, azkarra nintzen—, erori, eta ezkerreko behatz lodia <b>opildu</b> zidan."
<b>kalpar</b>	" <b>Kalparrak</b> ordenatzen ahalegindu nintzen. Alferrik."
<b>ri-ra</b>	"Hartu, eta bekainetaraino sartu nuen. <b>Ri-ra</b> . ikusten ez duen begiak negarrik ez."
<b>hacker-sin</b>	"Barrurta sartzea lortuz gero neure <b>hacker-sina</b> utzi ahalko dut bertan."
<b>igarobide-erritu</b>	"Eta ondoren beste ziber-lagunei esan ahalko nien. Horixe izango nuen <b>igarobide-erritua</b> ."
<b>errezelo</b>	"—Zergatik egiten duzu barre? —galdetu nion, jakin-minez, eta baita <b>errezelo</b> puntu batez."
<b>errai</b>	"Zure katu-begi berdeen oihartzuna erresonantzian hasi zen nire <b>erraietan</b> ."
<b>zabu</b>	"Berehala azalduko dizut. Demagun <b>zabu</b> edo kulunka baten aurrean gaudela, eta zabuari eragiten diogula."
<b>kulunka</b>	"Berehala azalduko dizut. Demagun zabu edo <b>kulunka</b> baten aurrean gaudela, eta zabuari eragiten diogula."
<b>hackeatu</b>	"Baina horretarako iraganbide-erritua bete behar genuen oraindik: zerbait iteresgarria <b>hackeatu</b> behar genuen."
<b>balentria</b>	"Ez inori azaldu zein izan diren zure <b>balentria</b> zibernetikoak, guztiz-gutztiz fidagarria ez bada behintzat."
<b>xahutu</b>	"...ordenagailuko teklak astintzen eta nire maitakerien inguruan hitzaldiak <b>xahutzen</b> ."
<b>txikito</b>	"—Laster ez haiz sartuko, <b>txikito</b> ."
<b>egoskor</b>	"Denbora asko eskatzen zuen madarikatuak, baina <b>egoskor</b> amorratuak ginen Ibon eta biok, txit gogokoa genuen teklatuaren aurrean orduak ahitzea."
<b>txit</b>	"Denbora asko eskatzen zuen madarikatuak, baina egoskor amorratuak ginen Ibon eta biok, <b>txit</b> gogokoa genuen teklatuaren aurrean orduak ahitzea."
<b>ahitu</b>	"Denbora asko eskatzen zuen madarikatuak, baina egoskor amorratuak ginen Ibon eta biok, txit gogokoa genuen teklatuaren aurrean orduak <b>ahitzea</b> ."
<b>ziria sartu</b>	"Norberak ahal duen erara <b>sartu</b> behar dio <b>ziria</b> izateari. Gustuko lubakia aukeratu behar, gaizki ez ibiltzeko."
<b>lubaki</b>	"Norberak ahal duen erara sartu behar dio ziria izateari. Gustuko <b>lubakia</b> aukeratu behar, gaizki ez ibiltzeko."
<b>lerdo</b>	"Baina haren zain iza ninduzun hala ere, <b>lerdo</b> moduan."

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>bekoki</b>	"Horrelako ibilaldi baten ondoren, <b>bekokian</b> emandako musu bat baino zertxobait gehiago merezi nuen, joder."
<b>ezkaratz</b>	"Musu bat eman zenidan –kopetan–, eta <b>ezkaratzeko</b> atea zeharkatu zenuen, niri beste ezer saiatzeko astirik eman gabe."
<b>putz</b>	"Ez zinen nigana gehiago hurbildu, puska batez behinik behin. <b>Putza</b> ."
<b>enigma</b>	"Gehiegi erakarri ninduen neure buruak sumatu nahi zuen <b>enigma</b> atmosferak."
<b>zelatatu</b>	"Begi ikusezin batzuk gu <b>zelatatzen</b> egongo balira bezala sentitu nuen."
<b>malkar</b>	"Baina tira, hasiera guztiek izaten dute <b>malkarren</b> bat."
<b>herdoil</b>	Burdinazko barrak zeuzkan atea, lantza antzekoak, muturrak zorrotzak –baina <b>herdoilak</b> ederki jota--."
<b>atalase</b>	"Bi unibertso desberdin banatzen zituzten barra haiek. Bi munduren arteko <b>atalasea</b> zen atea."
<b>nekosta</b>	"Hilerrietan egoten diren horietakoak –uste dut <b>nekosta</b> esaten zaiela–. zaindaari zuhurrak."
<b>alta</b>	"Ez nuen, <b>alta</b> , ahoa ireki."
<b>larregi</b>	"Hala ere zentzuzko distantzia bat mantendu zenuen bion artea, agian konfiantza <b>larregi</b> har ez nezan."
<b>barre-karkara</b>	"— A! Ona, ona –egundoko <b>barre-karkara</b> egin zenuen--."
<b>zimur</b>	"—Gauetik –arropako han-hemengo <b>zimurrak</b> leuntzen hasi zinen, txukun-txukun jarriz--."
<b>dedios</b>	"— <b>Dedios!</b> Hori lekutan dago!"
<b>suhar</b>	"Musu <b>suharrak</b> , hori bai."
<b>narrasti</b>	"Zu ganean, <b>narrastia</b> bazina bezala labainduz, limurtuz, eta urruma eginez. Hil ondoren eta letxeak, hura bai zela paradisua!"
<b>labaindu</b>	"Zu ganean, narrastia bazina bezala <b>labainduz</b> , limurtuz, eta urruma eginez. Hil ondoren eta letxeak, hura bai zela paradisua!"
<b>limurtu</b>	"Zu ganean, narrastia bazina bezala labainduz, <b>limurtuz</b> , eta urruma eginez. Hil ondoren eta letxeak, hura bai zela paradisua!"
<b>urruma egin</b>	"Zu ganean, narrastia bazina bezala labainduz, limurtuz, eta <b>urruma eginez</b> . Hil ondoren eta letxeak, hura bai zela paradisua!"
<b>letxe</b>	"Zu ganean, narrastia bazina bezala labainduz, limurtuz, eta urruma eginez. Hil ondoren eta <b>letxeak</b> , hura bai zela paradisua!"

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>zirrika</b>	"Minutu batzuez musuka eta <b>zirrika</b> ibili ondoren, erlojua begiratu nuen."
<b>majo</b>	" <b>Majo</b> arduratuta nengoen. Irribarre egiten ahalegindu nintzen, baina idorreriak jotako baten keinua izango zen ziurrago."
<b>idorreri</b>	"Majo arduratuta nengoen. Irribarre egiten ahalegindu nintzen, baina <b>idorreriak</b> jotako baten keinua izango zen ziurrago."
<b>zangalatraba</b>	"Nire gainean jarri zinen, <b>zangalatraba</b> . Izar guztiak estali zenizkidan."
<b>alamena</b>	"Pleiadeek, ordea, ez zuten onartu ehiztariak eman zien beroaldia eta <b>alamena</b> ."
<b>zarradagarri</b>	"Begirada beltz, ilun, sakona izan zen. <b>Zarradagarria</b> ."
<b>itsumustuan</b>	"Nire indar guztiak batu nituen. Zu ezustean harrapatzea erabaki nuen <b>itsumustuan</b> ."
<b>goiargi</b>	"Orduan jakin nuen. <b>Goiargi</b> batek aitortua bezala etorri zitzaidan gogora."
<b>pitzarazi</b>	" <b>Pitzarazten</b> ninduen bitartean."
<b>ño</b>	"—Izar-malkoak —ezagutze nituen astro bakarrenetakoak ziren eta aprobetxatu egin nuen, <b>ño</b> —."
<b>hozkirri</b>	"Gauak egundoko <b>hozkirria</b> ekarri zigun, eta txori txiki baten antzera utzi ninduen, hotzak kikilik."
<b>hotzak kikilik</b>	"Gauak egundoko hozkirria ekarri zigun, eta txori txiki baten antzera utzi ninduen, <b>hotzak kikilik</b> ."
<b>gailur</b>	Enbor zaharren trazak zeuden han eta hemen, ebakita edo lurrean erorita, baina ordurako <b>gailur</b> guztia zeharo soildua zegoen."
<b>soildu</b>	Enbor zaharren trazak zeuden han eta hemen, ebakita edo lurrean erorita, baina ordurako gailur guztia zeharo <b>soildua</b> zegoen."
<b>behiala</b>	" <b>Behialako</b> elezaharren mintzairak gorde, eta ahapeka baizik kontatuko ez balituzte bezala."
<b>ilunantz</b>	"Lehen ere, diskotekako <b>ilunantzean</b> , saiatu egin nintzen: zu aztertzen, miatzen, irensten."
<b>traza</b>	" <b>Traza</b> hori hartu nion, ba, zure begiradari."
<b>goibel</b>	"--Agur --esan zidan, irribarre <b>goibel</b> batez."
<b>haatik</b>	"...hura ere, <b>haatik</b> , bazterra izanik, jendez gainezka zegoen. Nahiko deserosoa zen."
<b>sobera</b>	"Langile aparta da Jaione, eta <b>sobera</b> argia —nazkagarritasuneraino, esaten zuen berak, autokritikarekin hasten zenean—."

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>joño</b>	" <b>Joño</b> , badakit."
<b>pasiera</b>	"Pixkanaka <b>pasierak</b> agiteko gelditu egiten ginen; mendi-bueltak egin genituen; erakusketak-eta ikustera joaten ginen."
<b>zurrun-zurrun</b>	"Musuka ari ginela, halako batean <b>zurrun-zurrun</b> gelditu zen Jaione, ni atzera bota, eta tupustean egin zidan tiro: —Noraino joan nahi duzu?"
<b>tupustean tiro egin</b>	"Musuka ari ginela, halako batean zurrun-zurrun gelditu zen Jaione, ni atzera bota, eta <b>tupustean egin</b> zidan <b>tiro</b> : —Noraino joan nahi duzu?"
<b>gajo</b>	"Begira-begira neukan, <b>gajoa</b> ."
<b>txiripa</b>	"Zuk ez duzu ziurrenik jakingo zein den. Ezagun baten laguna zen eta <b>txiripaz</b> ezagutu nuen behin."
<b>patetiko</b>	"Batzuetan, onartzen dut, mutilak aski <b>patetikoak</b> izan gaitzke."
<b>baldartasun</b>	"Egundoko lotsa ematen zidan saiatzeak ere, nire <b>baldartasun</b> guztiak zera baino ageriago gertauko baitziren."
<b>jauzika</b>	"Zorionez banekien, oro har behinik behin, <b>jauzika</b> hastearekin eta sinetsita zauden aurpegia jartzearekin nahikoa izaten dela normalean."
<b>esku-imintzio</b>	"Nik ezetz adierazi nion, <b>esku-imintzio</b> azkar batez."
<b>murmurikatu</b>	"Serio ari zinen? Uste dut mozkorra di-da pasatu zitzaidala. Iruditzen zitzaidana ari al zen pasatzen? —A, bai? — <b>murmurikatu</b> nuen."
<b>preseski</b>	"Ez ninduen gogokoa izan, <b>preseski</b> . Eskerrak nik ahoa zabaldu ere ez nuela egin eta isil-isilik egon nintzen..."
<b>pagano</b>	"Aingerua ematen zenuen, aingeru <b>pagano</b> eta bikaina."
<b>sekula santan</b>	"Ez nuen <b>sekula santan</b> loterian jokatu. Gau hartan, alabaina, gau hartan sari nagusia egokitu zitzaidala uste izan nuen."
<b>betortz</b>	"Nik irribarre egin nion eta betortzak erakutsi nizkion, nire baitako otsoa ateraz."
<b>sotil</b>	"Jatetxe txinatar bateko zerbitzarien moduan eta 'izorra hadi' <b>sotilena</b> esanez bezala."
<b>jesukristoren aitzur</b>	"Nik <b>jesukristoren aitzurra</b> neukan. Zu, agian, aspertuta zeunden."
<b>dir-dir</b>	"Distira bihurri bat sumatu nuen zure begietan, <b>dir-dir</b> ."
<b>arbuio</b>	"Zure <b>arbuioa</b> denbora kontua baino ezin zen izan—."
<b>alproja</b>	"Ezin nuen ulertu zer egiten zuen oraindik han, ni bezalako <b>alproja</b> batekin hizketan."